

ABENDUAK 2

Egin abendualdiko koroa

ABENDUAK 3

ABENDUALDIKO LEHEN IGANDEA

Erne egon!

ABENDUALDIKO EGUTEGIAREN MISIOLARI

ABENDUAK 24

ABENDUALDIKO LAUGARREN IGANDEA

Hau poza!

ABENDUAK 23

Eguberrietako filma familia osoarekin. Eta krispetak!

ABENDUAK 22

Egin pankarta bat Jesus iragartzeko, eta jarri balkoian

ABENDUAK 21

Egin zure izar misiolaria

ABENDUAK 20

Bilatu misiolarietako buruzko albiste bat eta bidali hona: infanciamisionera@omp.es

ABENDUAK 19

Ikasi Ama Birjina marrazten

ABENDUAK 18

Kreazioa denon ardura da. Landareak ureztatzea tokatzen zaizu

ABENDUAK 16

Txokolatego turroi hau jateko prest?

ABENDUAK 14

Jesus hurbil dago, joan aitortzera, eta prest egongo zara

ABENDUAK 15

Egin apaingarri hau zure zuhaitzerako

ABENDUAK 9

Apaindu etxea Eguberrietarako

ABENDUAK 12

Egin orri-markatzaile bat maitasunez

ABENDUAK 13

Prestatu Errege Magoentzako gutuna

ABENDUAK 11

Entzun abesti hau. Gogoan izan zer dioen

URTARRILAK 15

HAUR MISIOLARIEN EGUNA

ABENDUAK 25

EGUBERRI EGUNA

ABENDUAK 4

Lagundu ikaskide bati

ABENDUAK 6

Gaur eskolarik ez Jaiotza jartzeko egun aproposa

ABENDUAK 5

Mahaia ipini eta jaso behar duzu

ABENDUAK 7

Egin marrazki bat eta oparitu aitona-amonei

ABENDUAK 8

Ikusi erreportaje hau familian: MxM

ABENDUAK 10

ABENDUALDIKO LAUGARREN IGANDEA



Prestatu bidea



Berdindu bidea

ABENDUAK 17

ABENDUALDIKO HIRUGARREN IGANDEA





ABENDUALDIKO EGUTEGIAREKIN MISIOLARI 2023

Alta Santurzen Misio Ekinzok
mp
 Haur Misioerak



Misioa ez da gauzak ematea, edo ez da soilik gauzak ematea. Misioa bizi dudun hori eta naizen hori ematea da: nire fedea, nire itxaropena, nire maitasuna. Misioa munduko haur guztekiko bat egiten dudala sentitzea da, gure misiolariak Ebanjelioa, fedearen bizitza eta Jainkoaren seme-alabak izatearen poza irakasten dieten haur horiekiko bat. Misioa ardura bat izatea da: nire otoitzaren eta ahalgintaren bidez, gizaki guztek Jesus ezagutzeko eta maitatzeko ardura.

"Naizen hori partekatzen dut" esaten dudanean, misiolarien ikuspegitik zera nabarmenzen dut: partekatze komunitate baten kide izatearen edertasuna eta aberastasuna, eta, beraz, bakarrik edo isolatuta ez egotearena. Haur bakoitza, pertsona bakoitza, Jainkoaren irudira eta antzera sortzen da, eta, hortaz, asko dugu partekatze. Gai hori gaitasun gisa proposa daiteke, individualismoa eta egoismoa gainditzen eta salhesten laguntzeko.

NAIZENA PARTEKATZEN DUT

Haur misiolariak 2024

HUR MISIOLARIEN JARDUNALDIA 2024KO URTARRILAK 14

Erlobera: Omp España. Ilustrazioak: Pablo Rosendo

ABENDUAK 3

ABENDUALDIKO LEHEN IGANDEA


ERNE EGON

"Adi egon, erne. Bestela, ustekabea etortzen banaiz, lo egongo zarete."

Atezain hau lo geratu da partidaren erdian. Esnatu! Zerbait garrantzitsua gertatzen dago, eta prest egon behar duzu. Ezin zara hor lelotuta geratu besterik gabe. Bihotza txukun eta garbi edukitzeko unea da. Erne, arreta galdu gabe!

Asteko erronka: Agian ez zara konturatu, baina zure inguruan behar zaituzten pertsonak daude: eskolako ikaskide batzuk, zure lehengusuak edo zure gurasoak. Ireki ondo begiak eta bihotza, eta lagundu iezaezu.

Esaiozu Jesusi: "Jesus, lagundu erne egoten, egunero nire inguruan zaudela ikusteko eta nire laguntza behar duenari BAI esateko".



PRESTATU BIDEA

"Nire atzetik dator ni baino ahaltsuagoa dena, eta ni ez naiz inor makurtu eta haren sandaliek lokarriak askatzeko".



Ba al dakizu zein den jokalariei bostekoa ematen ari zaien entrenatzailea? Bai, Jesus da. Plan bat dauka taldearentzat. Kontatu plana taldekide guztiei! Prestatu Jesusen erabiliko duen bidea; hau da, bihotza. Eta esan besteei euren bihotzak prestatzeko.

Asteko erronka: Begiratu zure barruan. Ziur dena primeran egiten duzula, baina badago hobetu daitekeen zerbait. Pentsatu zer ahulune dituzun gurasoekin, anai-arrebeekin edo lagunekin, eta saiatu hobetzen.

Esaiozu Jesusi: "Jesus, zure zain nago. Lagundu bidea eta bihotza prestatzen harrera egiteko eta gustura egon zaitezzen,".

ABENDUAK 10

ABENDUALDIKO BIGARREN IGANDEA

ABENDUAK 17

ABENDUALDIKO HIRUGARREN IGANDEA

BERDINDU BIDEA

Ni naiz «basamortuan oihuka dabilena: Berdindu Jaunaren bidea»

Eguberri hauetan Jesusen zure bihotzean bizitzera etorri nahi du. Baina, hartu nahi ez baduzu, ez zaitu behartuko. Izugarri maite eta errespetatzen zaituenez, zure maitasuna eskatzera ausartzen da. Horregatik bidali du bere mezularia aurretik. Etorriko dela ohartarazten dizu, prestatu zaitez, bihotz guztietan txukundu eta garbitu behar diren lekuak daudelako. Jainkoa ahuldu egin zen zu indartzeko. Prestatu zelaia Jesusenkin partida jokatzeko.

Asteko erronka: Aste honetan, gehiago partekatu behar dugu. Partekatu zure paga beharra duen norbaitekin. Partekatu zure irribarrea ikaskideekin eta partekatu maitasuna gehien kostatzen zaizunarekin.

Esaiozu Jesusi: "Jesus, zu bezalakoa izan nahi dut. Pertsonaiek zuk begiratzen diezun bezala begiratu nahi diet, maitasunez betetako bihotzarekin."



HAU DOZA!

Poztu zaitez, graziaz betea, Jauna da zurekin

Jainkoak Maria aukeratu zuen Jesusen ama izateko. Munduaren Argia barruan eramateko. Eta Mariak baietz esan zuen! Jainkoak zuri eta kristau guztioi dei egiten digu, bidean aurkitzen ditugun pertsona guztiak Jesusengana hurbiltzeko. Mariak konfiantza izan zuen Jainkoarengan, eta baietz esan zion. Zuk ba al duzu konfiantza Jainkoarengan, baietz esateko?

Asteko erronka: Jesus jaio aurreko azken igandean gaude, baina ziur oraindik badagoela hori ez dakien norbait. Aste honetan, kartel bat egin behar duzu Jesus datorrela ohartarazteko. Gero, zintzilikatu etxeko leihoan edo balkoian.

Esaiozu Jesusi: "Jesus, emadazu konfiantza zuri jarraitzeko, nekatu gabe, leial eta pozik. Zuk bezala jokatzeko gai izan nadila".

